



Arartekoaren 2024IR-2222-24 Ebazpena, 2024ko azaroaren 18koa. Honen bidez, amaitutzat ematen du Segurtasun Sailaren Joko-galarazpenen Erregistroan borondatez izena emateko eskaera baten erantzun-faltaren harira hasitako 2222/2024/QC kexa-espeditentearekin lotuta egin duen jarduketara.

Aurrekariak

1. Herritar batek kexa-idazki bat aurkeztu zuen Arartekoan, ez baitzieten erantzunik eman Segurtasun Sailaren Joko-galarazpenen Erregistroan borondatez izena emateko egin zituen eskaerei.

Kexagileak aurkeztu duen dokumentazioaren harira, 2024ko urtarrilaren 19an eskaera egin zuen Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzan. Aipatutako erregistroan izen emanda ez zegoenez, 2024ko apirilaren 13an beste eskaera bat aurkeztu zuen Zabalburuko Ertzain Etxean.

Interesduna jokoan aritu zen egunero urtarriletik aurrera, eta 2024ko maiatzaren 14an egiaztatu zuen jarraitzen zuela izena eman barik, ez baitzaio debekatzen jokoretoetara sartzea.

2024ko maiatzaren 23an ekimenen inprimaki bat (Ekinbide) aurkeztu zuen Bilboko polizia-etxean, non egindako izapideak azaltzen eta haxe adierazten zuen: *"A fecha 23 de mayo de 2024 puedo seguir entrando a los locales de juego. Luego alguien no ha hecho bien las cosas"*.

2. Interesdunak eskatu zuenez Arartekoak berehala esku hartu zezala, erakunde hau harremanetan jarri zen telefono bidez Joko eta Ikuskizunen Bilboko Bilboko bulegoarekin, eta jakinarazi zioten 2024ko ekainaren 5etik badagoela erregistro horretan izen emanda. Interesdunak adierazi zuen hori horrela zela bulego horietan pertsonatu zelako eta eskaera errepikatu zuelako.
3. Gerora, Arartekoak Segurtasun Sailari eskatu zion laguntza interesdunak kexan planteatzen zituen gaiiei buruzko informazioa eman ziezaion.

Eskaera horri erantzuteko, Euskadiko Joko-galarazpenen Erregistroaren ezaugarriak eta funtzionamendua labur azaldu ostean, Joko eta ikuskizunen zuzendariaren txosten batean haxe azaldu zen:

"Euskadiko Joko-galarazpenen Erregistroko inskripzioa Estatuko Jokogalarazpenen erregistro orokorrera ere hedatzen da, interesdunak aurka egiten ez badu.

Horretarako, 2023ko uztailean, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zen Eskubide Sozialen, Kontsumoaren eta 2030 Agendaren ministerioarekin, interkonexio automatizatuaren bidez jokora sartzeko debekuen





erregistroetan egindako inskripzioak elkarri aitortzeko sistema bat ezartzeko. Hori dela eta, aldaketa teknikoak egin behar izan dira sistema informatiko autonomikoan, Estatukoarekin elkarreragingarria izan dadin.

Sarrera horrekin amaitzeko, aipatu behar da inskripzio-eskaera bide telematikoz ere egin daitekeela; bide horretatik iritsitako espedienteak Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren bulego nagusian ere izapidetzen dira.”

Araudian ezarritako epearen barruan izena ematea ez erabakitzeak arrazoiengatik inguruan zera adierazten du txostenak:

“Pertsona hori inskribatzeko inprimakiak Zuzendaritzara iritsi ziren, eta goian deskribatutako moduan tratatu ziren. Hau da, administrariak sisteman sartu zituzten datuak.

Lehenengo inskripzioa 2024ko urtarrilaren 19an egin zen. Inprimakia Bizkaiko Lurralde Bulegotik iritsi zen. Bigarren inskripzioa apirilaren 16an egin zen. Formularioa Bilboko ertzain-etxetik bidali zen.

Hirugarren inskripzioa ekainaren 5ean egin zen. Inprimakia Bizkaiko Lurralde Bulegotik iritsi zen. (Inskripzio-formularioen kopia erantsi da).

Hasiera batean, egiaztapen bikoitza egin ohi den arren, giza akats bati egotzi zitzaion inskripzio falta; hala ere, sistema aztertu ondoren, akats informatiko bat dela ikusi da. Akats horrek autonomia-erkidegoaren eremuko debekuei eragiten die, hau da, estatu-eremura hedatu gabeko debekuei.

EAEko eremuko debekuek editatu ezin diren bi balio dituzte: "Euskaditik kudeatua" eta "hitzarmena sinatu ondoren". Estatuko erregistroko datuak iraultzean, hitzarmena sinatu aurretik debekurik izan bada, gainidatzi egiten dira. Kasu horietan, sistemak debekuen historikora bidaltzen zituen datuak, eta horregatik ezabatu ziren erregistro aktibotik.

Akatsa zuzendu egin da, eta JOIKU (Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren aplikazio sistema) eguneratu egin da. Era berean, erregistroa berrikusten ari gara, akats gehiagorik ez dagoela egiaztatzeko.”

Interesdunaren eskaerak bidali dira (2024ko ekainaren 5ean, 2024ko apirilaren 13an eta 2024ko urtarrilaren 19an erregistratu ziren).

Administrazioaren jarduketaren harira Ekinbiden egindako erreklamazioari erantzunik ez emateko arrazoiak dagokienez, nahiz eta horretarako betebeharra izan, hau da adierazi dena:





“Uztailaren 24an, asteazkena, Ertzaintzaren Idazkaritza Nagusiaren mezu elektronikoa jaso zen Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren postontzi orokorrean, interesdunak egindako kexa bat zegoela jakinarazteko (erreferentzia: Ekin/2024/xxx), eta honako eskaera hauek egiten zituen:

- "Bilboko ertzain-etxeak xxxx helbide elektronikora bidalitako eskabidearekin gertatutakoari buruzko informazioa, gertatutakoa argitu eta interesdunari erantzun ahal izateko.

- Era berean, interesgarria izango litzateke jakitea interesatuaren gainean jokia egiteko borondatezko debekurik dagoen, eta eskabidea zein egunetan eta zein modutan aurkeztu den”.

Mezu horri ez genion erantzun Sistemen eta Kudeaketaren zerbitzuaren koordinazio-akats batengatik; izan ere, sarrera-erregistrorik ez zuenez, ez baitzen esleitu izapidetzeko.

Baliteke mezu horri erantzun ez izana Ekinbiden aurkeztutako erreklamazioari erantzunik ez ematearen arrazoia izatea.”

Bestalde, Ekinbide – Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritarren ekimenen bulegoko arduradunak hauxe adierazi zuen txostenean:

“La tramitación de la queja planteada por la Sra. (...) en Ekinbide se inició el 24 de mayo de este año. Estaba motivada por una supuesta falta de aplicación de dos solicitudes de interdicción voluntaria de acceso a los locales de juego que había presentado los meses anteriores, primero en el Gobierno Vasco y después en la Ertzain-etxea de Bilbao.

Ekinbide inició las actuaciones indagatorias, necesarias para ofrecer una respuesta fundamentada, solicitando información a los servicios implicados dependientes del Departamento de Seguridad. Revisadas las actuaciones, se puede concluir que un error en la tramitación administrativa condicionó que no se recibiera el informe indispensable para conocer los motivos de la falta de atención a la solicitud de interdicción hasta el 4 de octubre, por lo que la contestación a la interesada se retrasó hasta el día 8 de octubre”.

4. Beharrezkoak diren zuzenbideko oinarriak eta gertaerak daudela ulertuta, hona hemen Arartekoaren

Gogoetak

1. Joko-galarazpenen Erregistroaren xedea da hor inskribatzen diren pertsonen sarrera debekatzea sarrera kontrolatzeko sistemak aplikatu behar dituzten joko-lokaletara edo bitarteko elektronikoen, informatikoen, telematikoen eta elkarreragileen





bidezko joko-arloko webguneetara (120/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoaren Erregelamendu Orokorra onesten duena. 18.1 artikulua).

Aipatutako artikulua bigarren apartatuaren arabera, jokia arautu behar duen agintaritzak Joko-galarazpenen Erregistroan inskribatuko ditu, besteak beste, jokorako sarbidea debekatu dakiela borondatez eskatzen duten pertsonak.

18. artikulua horren arabera:

“3.- Interesdunaren borondatezko inskripzio-eskaera interesdunak berak edo bere ordezkariak egin dezake Jokoa Arautzeko Agintaritzan. Osakidetza/Euskal osasun zerbitzuak eta jokoarekiko adikzio-arazoak dituzten pertsonak errehabilitatzea helburu duten elkarteek ere (elkarte horietan errehabilitatzen ari diren pertsonen dagokienez) aurkez dezakete eskaera, betiere interesdunak alde aurretik horretarako baimena ematen badu.

Inskripzioa erabakitzeko epea hiru egunekoa izango da, eskaera Jokoa Arautzeko Agintaritzaren erregistroan sartzen denetik zenbatzen hasita, eta indarraldi mugagabea izango du. Nolanahi ere, inskribatzea egin zenetik sei hilabete igarotakoan, interesdunak inskribatzea ezeztatzeko eska dezake.

4.- Borondatezko inskripzioaren eskabidea joko-lokalen sarrera-kontrollean aurkeztu ahal izango da, bai eta bitarteko elektronikoko, informatiko, telematikoko eta interaktiboaren bidez egindako sarbide-kontrollean ere, baldin eta eskatzailea behar bezala identifikatzen badute. Joko-lokal edo -enpresatik elektronikoki bidali beharko diote Jokoa Arautzeko Agintaritzari, aurkezten denetik 3 eguneko epean. Jokoa Arautzeko Agintaritzak hiru eguneko epean erabakiko du inskripzioa, Jokoa Arautzeko Agintaritzaren erregistroan sartzen den egunetik zenbatzen hasita. Inskripzioak indarraldi mugagabea izango du, baina interesdunak hura ezeztatzeko eskatu ahal izango dio Jokoa Arautzeko Agintaritzari, inskripzioa egin eta sei hilabete igaro ondoren.

5.- Ertzain-etxeetan ere aurkeztu ahal izango da jokoan parte hartzeko borondatezko galarazpenari buruzko eskaera, bai borondatez inskribatzeko, bai Joko-galarazpenen Erregistroan ezeztatzeko. Dagokion ertzain-etxetik Jokoa Arautzeko Agintaritzari bidali beharko diote 3 eguneko epean, eskatzailea modu frogagarrian identifikatu dela egiaztatzen duen identifikazio-eginbidea erantsita.”

Azkenik, adierazi behar da haxe xedatzen duela 18. artikuluko 9. apartatuak: *“Jokoa Arautzeko Agintaritzak koordinazio-lana egingo du Joko-galarazpenen Erregistroaren eta Espainiako Estatuan dauden baliokideen artean. Horretarako, hitzarmenak egingo dira datuak komunikatzeko, eta, hala badagokio, joko-galarazpenen erregistroak interkonektatzeko.”*





2. Aurreko guztia ikusi ondoren, argi dago jokoa arautzen duen agintaritzak ez zuela bete horretarako ezarritako protokoloa eta ez zuen interesduna erregistroan izen eman ezarritako epeetan. Horrenbestez, ez zituen egokiro izapidetu interesdunak joko-lokaletara sartzeko autodebekua eskatzeko egindako eskaerak, eta ez zuen debekatutakoen zerrendan sartu.

Sailak erakunde honi jakinarazi dio zein den interesdunak joko-lokaletara sartzeko debekuak behin eta berriro urratzea azaltzen duen arrazoia, eta esan dio erregistroa berrikusten ari direla, egiztatzeko ez dagoela beste akatsik.

Hori gorabehera, erakunde honek jasota utzi nahi du erregistro-faltak ondorio larriak izan ditzakeela eskatzaileentzako, joko-aretoetara sartzeari dagokionez, baita haietzako eraginak izan ditzakeela ere. Beraz, errepikatu behar da beharrezkoa dela neurri teknikoak eta prozedurazkoak zaintzea gertaera horiek egon daitezela saihesteko asmoz.

Gauzak horrela, Arartekoaren iritzi, sortu den egoerak esan nahi du jokoaren inguruko zerbitzuen ohiz kanpoko funtzionamendua egon dela, eta kexagilearentzako jarduketa kaltegarria omen dela joko-galarazpenen erregistroen interkonexioan izandako arazoen ondorioz.

Horrez gainera, kasu honetan esanguratsua da interesdunak ohiz kanpoko funtzionamendu hori identifikatu eta haren berri eman ziola Sailari behin baino gehiagotan, baina arazoa ez zen detektatu eta konpondu harik eta interesdunak hirugarren eskaera egin zuen arte, 2024ko ekainaren 5ean eta Ekinbiden kexa jarri ostean. Horrenbestez, gertatutakoa larrizko modukoa izateaz gain, argi eta garbi erakusten du hobetzeko tarte nabarmena dagoela zerbitzu horrek azaldutakoa bezalako egoera batean izan behar duen erreakzionatzeko gaitasunari dagokionez, kexagileak aukera izan baitu eragozpenik gabe sartzeko joko-lokaletara, nahiz eta jokoan eta ikuskizunen inguruan eskumena duen zerbitzuari behin eta berriro eskatu dion borondatez sarbidea debekatzeko.

Laburbilduz, akatsa zuzentzeaz, JOIKU (Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzaren aplikazioen sistema) eguneratzeaz eta erregistroa berrikusteaz gain, egiztatzeko akats gehiagorik ez dagoela, erregistroaren informazioko eta kudeaketako sistemak ere auditatu behar dira, bermatzeko behar bezala funtzionatzen dutela eta eraginkorrak direla bertan izena ematen dutenak zaintzeko eta babesteko neurri gisa.

2024ko maiatzaren 23an Ekinbiden jarritako kexari dagokionez zera adierazten du txostenak: *"Revisadas las actuaciones, se puede concluir que un error en la tramitación administrativa condicionó que no se recibiera el informe indispensable para conocer los motivos de la falta de atención a la solicitud de interdicción hasta*





el 4 de octubre, por lo que la contestación a la interesada se retrasó hasta el día 8 de octubre”.

Arartekoak egiaztatu besterik ezin du egin administrazioak ez diola erakunde honi bidali interesdunari emandako erantzuna, nahiz eta Segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritarren ekimenen bulegoaren irailaren 29ko 181/2015 Dekretuaren 13.1 artikulua haxe ezarri: *“Egindako jarduera guztiak espedienteari gehitu eta Ekinbidek haien berri emango dio eskatzaileari, ekimena jaso denetik bi hilabete baino lehen, azalpenak emanaz eta hizkera argian, hobeto ulertu ahal izateko. Jakinarazpen hori egin ondoren, artxibatu egingo da espedientea.”*

Hori horrela, arau horrek administrazioak behartzen ditu arrazoizkotzat jo duen epe baten barruan erantzutera eta, beraz, interesdunari erantzuteko atzerapen nabarmen horrek urratu egiten du administrazio onaren printzipioa, eta kalteak ere eragin ditzake kexan planteatzen den gaian eta antzekoetan.

Ondorioa

Aurreko balorazioaren ondorioz, Arartekoak kexaren harira izapidetu duen 2222/2024/QC espedientean egindako esku-hartzea amaitzea erabaki du.

Edozelan ere, Arartekoak Segurtasun Sailari gogorarazi nahi dio neurri teknikoak eta prozedurazkoak zaindu behar dituela interesdunak pairatu behar izan dituen egoeren antzekoak saiheste aldera, administrazioaren ohiz kanpoko funtzionamendua dakartelako.

Halaber, Arartekoak Segurtasun Sailari gogorarazten dio epez eta arrazoibidez erantzun behar diela herritarren egiten dituzten idazkiei.

Aurrekoa adierazi ostean, Arartekoak espediente hau itxi eta artxibatzea erabaki du.

